

2011ko MAIATZEKO ESKUALDE BILERETAN ZABALDUTAKO INFORMAZIOA

1. 2011. URTEKO GURASO ELKARTEENTZAT DIRU LAGUNTZAK

Maiatzaren 10eko EHAAn emango da argitara IGEentzako diru laguntzen deialdiaren agindua.

Laguntzak IGEek **2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean** egingo dituzten ekintzetarako dira soilik, HAU DA 2011. URTE OSORAKO, eta bi inprimaki bete behar dira:

I. eranskina: eskabide orria, honako datu hauekin: eskaria egiten duen pertsonaren datuak (IGEaren lehendakaria), IGEaren erregistroaren datuak, ikastetxeko ikasle kopurua eta IGEa bazkide den Federazioaren izena (zuei dagokizunez, BAIKARA). Eranskin hori lehendakariak sinatu behar du, eta IGEaren zigilua ere jarri behar da (*IGEak zigilurik ez badu, ikastetxearena*).

II. eranskina: IGEak **2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra** egingo dituen ekintzen egitaraua zehaztu behar da eranskin honetan, hiru sailetan bereizita: azpiegituretakoa gastuak eta ekintzak; gurasoentzako ekintzak; ikasleentzako ekintzak. ERANSKIN honetan **bi sinadura** jarri behar dira: IGEaren lehendakariaren sinadura eta zigilua, eta ikastetxeko Eskola Kontseiluko-OOGko idazkariarena.

EPEA: Eskariak aurkezteko epea 2011ko maiatzaren 11tik ekainaren 10era egongo da zabalik (epea kanpo erregistratutako eskaririk ez da onartuko).

Dokumentazioa bizkorrago aurkezteko eta balizko gorabeherak garaiz konpondu ahal izateko, arren eskatzen dizuegu diru laguntzaren eskaria BAIKARAREN bidez egin nahi duzuen IGEei ekainaren 3rako bidal diezaguzuela dokumentazio guztia behar bezala beteta.

Deialdiaren edukiak ezagutzeko, sartu Baikararen web orrian (www.baikara.org)

Laguntzaren justifikazioa

Onartutako diru laguntzen zerrenda EHAAn argitaratzen dutenean (iraila aldera izango dela uste dugu), argitaratze egunetik 15 eguneko epea izango dute IGEek jasotako laguntza justifikatzeko. Justifikaziorako, **III. ERANSKINA** behar bezala bete eta aurkeztu beharra dago, **jatorrizko fakturak eta ordainagiriak** atxikita. Argi zehaztu behar dira hiru ekintza motetako bakoitzari esleitutako zenbatekoak, baita gastuen zenbateko osoa ere.

Datu horiek iraila bukaeran aurkeztu beharko direla iruditzen zaigu, eta garaia iristen denean emango diegu horri buruzko informazio gehiago IGEei.

2.- JANGELETAKO GATAZKARI BURUZ

2008ko irailaz geroztik –orduan iraungi zen eskola jangeletako langileen hitzarmen kolektibo–negoziazioak egin dira enpresen eta sindikatuen artean, hitzarmen kolektibo berria sinatzeari begira. Negoziazio horiek goitik beherako hutsa izan zira, ordea, azken hiru ikasturteetan zenbait greba izan baitira. Maiatzean, gainera, erradikalizatu egin dira greba deialdi horiek; hala, maiatzaren 2tik 22ra, hiru asteko greba iraunkorrerako deia egin dute sindikatuak. Grebek izandako erantzunaren gaineko desadostasunak gorabehera, ukazina da mobilizazio horiek familiei kalte nabarmena eragiten dietela, baita eskola publikoaren beraren irudiari ere.

Egoera hori ikusirik, eta auziak ez zuenez epe laburrera begira konpontzeko itxurarik, BAIKARAK bilera baterako deialdia egin zien IGEei, gatazkaren konponbidean eragitearren IGEek zer neurri har zezaken aztertzeko. Bilera hartan, txosten bat banatu zen, gatazkaren xehetasnuak eta negoziazioei buruzko balioespena biltzen zuena. Eztabaida bizia izan zen, baina, azkenean, erabaki zen familiei mobilizatzeko deia egitea, IGEen bidez, eta ikastetxeetan edo IGEek egoki irizten zieten tokietan kontzentrazioak egitea, maiatzaren 16an, astelehenean, eskolak amaitzen ziren orduan. Kontzentrazio horien helburua zen, familiek gatazka honi buruz duten kezka adierazteaz gainera, nolabaiteko presio soziala sortzea gatazkan nahastuta

dauden aldeei, lehenbailehen auziari konponbidea eman diezaioten, eta ikastetxeek lehenbailehen beren ohikotasunera itzultzeko aukera izan dezaten.

Batzarra egin zen egunean bertan ere optimismoa sumatzen zen, akordioa sinatuko zelako ustean; baina itxaropen horiek ezerezean gelditu ziren, berriz ere huts egin baitzuen akordio ahaleginak eta eutsi egin baitzitzaion maiatzaren 22ra arteko greba deialdi horri.

Maiatzaren 13an beste ohar bat bidali genien IGEei, informazio honekin:

1.- Negoziazioen egoera

Enpresek egindako azken eskaintza maiatzaren 10ekoa da; sindikatuen iritzian, ordea, eskaintza hori "ez da nahikoa". Eskaintza horrek proposamen hauek biltzen zituen, atal nagusiei buruz:

- *Zerbitzuaren hobekuntzarako urteko 18 orduko lanaldi luzapenaren orduak lanaldi arruntean sartzea (gaur egun, ordu osagarri modura hartzen dira).*
- *Formazioko 6 orduak lanaldi arruntean sartzea.*

Sindikatuak onartu egin dituzte bi proposamen horiek, baina ez da adostasunik lortu soldata igoeraren gaian. Enpresen eskaintzan, Hezkuntza Saileko langileekiko soldatari buruzko %95eko parekatzea aipatzen da; hala, 2011/2012 ikasturtean, begiraleen urteko ordainsaria 20.000,63 eurokoa litzateke; hau da, Hezkuntza Saileko sukaldeko langileena baino %5 txikiagoa (2011. urtean 21.063,29 eurokoa izango baita horien soldata). Alde hori orekatzeko, enpresek "produktibitate saria" eskaini diete begirale eta ofitico langileei, 2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetarako; sari horren bidez, hain zuzen, %5eko alde hori beteko litzateke, baina lantoki bakoitzeko absentismo indizearena arabera gauzatuko litzateke eskaintza. Hala, langileek %5eko alde horren %100 kobratzeko aukera izango lukete, baldin eta beren lantokiko absentismoa, ikasturteka kalkulaturik, %2,50etik beherakoa balitz. Ehuneko horretatik aurrera, ordea, zenbatekoak murriztuz joango lirateke; eta, hala, absentismoa %5etik gorakoa izanez gero, langileek ez lukete jasoko inolako produktibitate saririk. Sindikatuak ez dute onartu enpresen proposamen hori.

Egoera hori dela eta, iruditzen zaigu une honetan akordioa lortzeko zailtasun nagusia soldaten igoera dela, eta ez hainbeste jangela zerbitzuaren hobekuntzari loturiko neurriak (lanaldiaren luzapena, formazioa...).

2- Ikastetxe pribatuetako jangeletako langileekiko konparazioa

Maiatzaren 10ean IGEek egindako asanbladan, ikastetxe pribatuetako jangeletako langileen lan baldintzei buruzko informazioa eskatu zitzaigun, sektore horretan lan gatazkarik ez dagoela ikusirik. Asanbladan esan genuenez, langile horiek ikastetxe publikoetako jangeletako langileek baino lan baldintza are kaskarragoak dituztela uste dugu. Nolanahi ere, erantzun zehatzagoa ematearren, datuak eskatu ditugu, eta asanbladan emandako erantzuna berretsi dute datu horiek. Ikastetxe pribatuetako jangeletako langileen baldintzak ostalaritzako hitzarmenak arautzen ditu, eta, konparazio baterako, Gipuzkoan, lanean egindako orduko 9,38 euroko soldata du begiraleak, alegia, ikastetxe publikoetako jangeletako langileena baino %21 txikiagoa. Datu horiek ikusirik, IGEen federazioek sindikatuei galdetu zieten lan gatazkak zergatik gertatzen diren irakaskuntza publikoan soilik, irakaskuntza publikoaren alde egiten dugun familiei dakarkigun kaltearekin eta ondorio sozialekin, eta zergatik ez den inoiz halako gatazkarik sortzen irakaskuntza pribatuan. Non gelditzen da sindikatuek sektore publikoan hain sutsuki defendatzen duten "lan bera, soldata bera" printzipio hori? Baina erantzunaren zain gaude.

3.- 18 ordu osagarriak kentzea

Azkenik, IGEei jakinarazi nahi diegu akordiorik ez dagoenez eta ez dugunez ikusten lanaldiaren luzapeneko 18 ordu horien tratamendu egokia bermatzeko hitzarmen kolektibo berria sinatzeko aukerarik (gogoan izan behar da ordu horiek familien kuoten igoeraren bidez finantzatzen dela), federazioek Hezkuntza Sailarekin hitzartu dugu lanordu horiek kentzea, datorren ikasturtera begira, eta ez aplikatzea, harik eta akordio iraunkor eta behin betikorik sinatzen ez den arte. Jakina, 18 ordu horiek kenduz gero, eguneko menuaren kostutik kenduko lirateke ikasturte honen hasieran igotako 30 zentimoak.

Gatazka epe laburrean konpondu ezean, maiatzaren 10eko batzarrean mobilizazio gehiago egiteko aukera planteatu zen, baina ikuspegi zabalagoa emanez (eskualdean eta, behar izanez gero, probintzian). Era berean, aldean arteko elkarrizketak soldata igoeraren puntuan ez aurrera ez atzera geldituz gero, Federazioek aldeei eska liezaiekete jo dezatela lan arloko erakundeetara (PRECO,...), bitartekaritza edo arbitrajea eskatzeko, gatazka behin betiko konpon dezaten.

3.- HEZKUNTZA MARKO HIRUELEDUNA

Aurreko bileretan jakinarazi genuen bezala, aurreko ikasturtean abian jarri zen Hezkuntza Marko Hirueleduna esperimendazio proiektua. Proiektuan parte hartzeko, deialdi ireki bat egin zuten Hezkuntza Sailak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxei. Sare publikoan ez zuten arrakasta handirik izan deialdi hark; izan ere, 40 ikastetxe onartu zituzten proiektuan parte hartzeko, baina horietatik 16 bakarrik ziren publikoak, bakar bat ere ez Gipuzkoakoa.

2011ko martxoan, Hezkuntza Sailak beste deialdi bat egin zuen, baina sare publikoari begira soilik. Deialdi horrekin batera, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak kanpaina hasi zuen ikastetxeetan, deialdi horretara aurkezteko bultzatzeko. Eskabideak aurkezteko epea amaitu da dagoeneko, eta 47 ikastetxe publikok aurkeztu dituzte proiektuak; 15 dira Gipuzkoakoak, 10 Lehen Hezkuntzakoak eta 5 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak. Oraindik ez dakigu zer ikastetxe onartu dituzten, eta ez daukagu ezer esaterik Gipuzkoak ikastetxeek proiektu horri loturik izan dezaketen interesari buruz. Hala ere, jakin badakigu proiektuak aurkezteko garaian ikastetxe batzuek deialdian agertzen ez ziren zenbait proposamen txertatu dituztela, eta litekeena da deialditik kanpo gelditzea.

Sare itunduari dagokionez, Hezkuntza Sailak "Sare pribatu itunduan hirueletasuna bultzatzeko protokoloa" sinatu du sektore horretako patronalekin, sare horretan proiektu esperimendalak sustatzeko.

Gogoan izan beharra dago proiektu horietan nahitaez eskaini beharra dagoela curriculumeko edukien %20ren irakaskuntza, gutxienez, bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntza batean; eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 1. mailan ezartzen direla. 3 urteko esperimendazioaren ondoren –egin beharreko ebaluazioak eginda– marko hirueledun hori derrigorrezko hezkuntza gutian ezartzea egokia ote den aztertu beharko da.

4.- KUDEAKETARAKO SOFTWAREA EZARTZEKO PROIEKTUA.

IGEn gabezia nagusietako bat elkarteen kudeaketarako informatizazio maila kaskarra da, baita informazioaren teknologia berrien erabilera urria ere. IGEek arlo horretan aurrera egin dezaten, proiektu berri bat abian jarriko du BAIKARAK. Proiektu horrek bi alderdi hauek izango ditu ardatz:

1.- IGEen kudeaketarako softwarea ezartzea, zenbait tokitan instalatzeko moduko egiturarekin (lehendakariaren ordenagailua, diruzainarena, idazkariarena...), Interneteko konexio baten bidez eta SIGA izeneko aplikazioaren bidez. IGEaren kudeaketarako datu basea gordetzen den zerbitzari bati konektatuta egongo da. Hala, IGE bakoitzak bezero software bat izango du, egoki irizten dion adina ordenagailutan instalatzeko eta ordenagailu horietatik aplikazioa erabiltzeko, betiere Internetera konektatuta egonik. IGE bakoitzak bere datu basea izango du zerbitzari zentralean, eta dagokien baimenen jabe diren elkarteko kideek beste inork ezingo dute sartu datu base horretara. Softwarearen xehetasunak aztertzeko, instalaziorako CDak eta programa erabiltzen ikasteko bideoak banatuko dira.

Kudeaketarako softwarearen kostuak bi atal hauek hartzen ditu bere baitan: alde batetik, instalazioa eta konfigurazioa, baimenak eta abar (350,46 euroko kostu bakarra); eta, bestetik, hileroko mantentze kostua, barne hartzen dituen telefono bidezko laguntza, mantentzea, segurtasun kopia eta hobekuntzen garapena (hileko 34,22 euroko kostua; hau da, urteko 410,64 euro).

Softwarea instalatzeko interesa duten IGEei laguntza ekonomikoa ematearren, BAIKARAK bere gain hartuko du hasierako instalazioaren kostua (350 euro), eta IGEek beren gain hartuko dute hileroko mantentzearen kostua.

2.- IGE bakoitzarentzako web orri pertsonalizatua garatzea. Orri horretan, oinarritzko atal hauek agertuko dira: orri nagusia (elkarteen logotipoa; sarrera; harremanetarako datuak; kokalekua; eta menuko botoiak); beste orri bat dokumentuak, akta, etab. biltzeko, Internet bidez eskuratzeko moduan egon daitezten, karpitetan sailkatuta; beste orri bat argazki album pare bat ezartzeko; eta, azkenik, elkarteen beraren oharren eta albisteen orria.

Web orriari loturik, honako zerbitzu hauek eskainiko dira: domeinu publikoaren kontratua; web orriaren argitalpena eta mantentzea; artxibo, argazki eta albisteak sartzeko pasabide bat; eta elkarteko kideentzako posta elektronikoko helbideak esleitzea.

Web orriaren kostuak bi atal hauek hartzen ditu bere baitan: alde batetik, pertsonalizazioaren kostua, domeinuaren hasierako alta, posta helbideak esleitzea, web orria argitaratzea, etab. (340,66 euroko kostu bakarra); eta, bestetik, hileroko mantentze kostua, barne hartzen dituen

domeinua eta ostatatzea, telefono bidezko laguntza, esteken egiaztapena, akatsak konpontzea eta hobekuntzen garapena (hileko 29,15 euro; hau da, urteko 349,80 euro).

Web orrian interesa duten IGEei laguntza ekonomikoa ematearren, BAIKARAK bere gain hartuko du hasierako instalazioaren kostua (340 euro), eta IGEek beren gain hartuko dute hileroko mantentzearen kostua.

Proiektu hau Ezkio-Itxason kokatutako GARAPEN enpresarekin lankidetzan gauzatuko da. Enpresa horretako teknikari batek garatu du proiektua; teknikari hori Legazpiko Domingo Agirre ikastetxe publikoko IGEko Zuzendaritza Batzordeko kidea da, gainera. Hain zuzen ere, ikastetxe hartako IGEan softwarea ezarri eta web orria sortu zuten, eta haien esperientzia izan da ekimen honen abiapuntua; izan ere, ikastetxe hark BAIKARARI proposatu zion IGE hartan proiektua esperimentatutakoan beste IGE bazkide batzuetan ezartzeko aukera aztertzea eta proposatzea.

5.- DBHKO 4. MAILAKO ALDAKETAK

Hezkuntza Ministerioak dekretuaren zirriborroa aurkeztu du. Uda aurretik onartuko dute, dirudienez. Dekretu horren arabera, DBH 4ko ikasleek hiru adar hautatzeko aukera izango dute: Humanitateak, Zientzia-Teknika eta maila ertaineko Lanbide Heziketarako prestakuntza. Araudi berriak dioenez, hiru adar horien artean aukerako hamaika irakasgai eskainiko dira. Baina ikastetxeek gastu gehiago izan ez dezaten, irakasgai horietako sei besterik ez dituzte eskaini beharko institutu txikiek. Oraingoz, ez da adar horietako bakoitzerako behin betiko izenik erabaki; bestalde, edozein adar aukeratzen dela ere, horrek ez dio eragotziko ikasleari Batxilergorako nahiz Lanbide Heziketarako bidea hartzea gero. Eredu berri hori nahi duten ikastetxeek ezarriko dute datorren ikasturtean, baina nahitaezkoa izango da 2012-2013 ikasturtean.

Ikasleek nahitaezko zazpi irakasgai landuko dituzte, eta aukera izango dute hautatutako adarreko bi irakasgaitan eta beste bi modalitateen arteko irakasgai batean izena emateko. Hala, ikasleek hamar irakasgai izango dituzte. Oraindik erabaki gabe daude adar bakoitzeko irakasgaien izenak, baina dagoeneko zehaztuta dago zein izango diren nahitaezkoak: Gorputz Hezkuntza, Etika-Herritartasun Hezkuntza, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, Gaztelania eta Literatura, Matematika, Atzerriko Hizkuntza eta, Euskadin, Euskara.

Proposamen horri dagoeneko kritikak egin dizkiote hezkuntzako sektore batzuek, argudiatuz DBHko 4. mailan nahitaez hiru adar eskaini behar izatea ikasleak gaitasunen arabera sailkatzeko balia lezaketela institutu batzuetan; hau da, Batxilergora bidera ditzaketela Humanitateak eta Zientzia-Teknika aukeratzen duten ikasleak, eta Lanbide Heziketara edo ikasketak alde batera uztera, berriz, Lanbide Heziketarako prestakuntza aukeratzen duten ikasleak. Iritzi hori dutenen arabera, irakasle taldeak, finkatu beharreko neurriak eta laguntzak finkatu ordez, eta, kasu batzuetan, Hezkuntza Administrazioaren babesik ezaren ondorioz, Lanbide Heziketara bidera litzakete gaitasun gutxienekotzat jotzen dituen ikasleak.

6.- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA. 2011

Gogorarazi nahi dizuegu ekainaren 5ean, igandean, Euskal Eskola Publikoaren 20. Jaia egingo dela, Bilbon. Jaiguneak Areatza, Arriaga antzokia, Volantin ingurua... hartuko ditu.

7.- GALDE-ESKEAK